



ikastolak



PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA ATARRABIA



Ikasleak jazarpen egoera bat antzeztzen.

Bizikidetza: harreman egokiak eraikitzen

KIVA PROIEKTUAREN ESKUTIK GIROA HOBETZEA LORTZEN DA, IKASLEEI JAZARPENA EKIDIN ETA MOZTEKO TRESNAK ESKAINIZ

Testua eta argazkia Paz de Ziganda Ikastola

Paz de Ziganda Ikastolan, Nafarroako beste ikastolekin batera, KiVa egitasmoaren ezarpena gauzatu dugu azken urtean. KiVa ikastolako bizikidetza aberastu du eta, batik bat, prebentzio arloan egiten dugun lana sistematizatzeko baliabide aparta

izan da. Lehen Hezkuntza osoan iaz zabaldu genuen proiektua eta aurtengo DBH I. mailara ere luzatu dugu.

AUTOEZAGUTZA ETA ENPATIA KiVa ikasleak egoera ezberdinak bizitzera eramaten ditu, autoezagutza eta hausnarketa bultzatzen ditu batetik,

eta bestetik, enpatia garatzen du rol ezberdinak jokatuz. Zapaltzaileak batzuetan, zapalduak hurrengoan, laguntzaileak edo ikusle pasiboak... ikasleak aktore bilakatzen dira eta jokabide anitzak antzeztzen dituzte. Ondoren, horrelako egoeretan sortzen den "agertokia" behatuz eta

aztertuz.

Argazkian ikus daitekeen bezala, egoera hauek jokabide egokiak modelatzeko baliagarriak dira, benetako egoera bat suertatzen denean jokabide proaktibo eta positibo bat izan dezaten. Ikasleak jazarpena identifikatu eta haren kontrako eragile nagusiak izan behar dira.

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA Jarrera ezegokiak gertatzen direnean, hauek zuzentzea du helburu programak, ikaslea epaitu beharrean, egoera baloratzen da. Ikasleei haien jokabide okerra zuzentzeko aukera ematen zaie, denon artean elkarbizitza hobetuz.

IKASLEEN AHOTAN Ikasleen bizipenetatik abiatzen garela, LH 6. mailako ikasle batzuei jardura hauen bitartez zer ikasten ari diren galdetu diegu eta honako hauek izan dira erantzunak: "Autokontrolaren ga-

rrantziak jabetu naiz" (Anne, 11 urte); "KiVa enpatizatzen lagundu dit eta jazarpena dagoen pertsona nola sufrizten ari den argiago ikusi. Baita jazarleak horrela jokatzeke sufrimendu bat duela horren atzetik ere" (Maitte, 11 urte); "KiVa lantzen ari garenetik pozik, babestuago sentitzen naiz eta laguntzeko prest arazo baten aurrean. Niri egingo balidate irakasle eta gurasoei kontatuko nieke, laguntzeko. Beste norbaiti balitz, berarekin geratuko nintzateke eta beste jarrera hori mozteko eskatuko nieke." (Nagore, 11 urte).

Ikasle askoren ahotsan, KiVa lagungarria suertatu zaie zentzu askotan: "Asko lagundu dit jazarpena nola kontrolatu eta nola lagundu besteak. Orain badakit identifikatzen noiz dagoen jazarpena eta noiz ez" (June, 11 urte); "Indartsuago sentitzen naiz orain, ez naiz beldurtzen, trebeagoa naizelako egoera hauen aurrean" (Estitxu, 11 urte); "Konfiantza eta segurtasuna ematen dit jazarpen kasu bat gelditzen jakitea egoera asko eta askotan; eta jakiteak niri egingo balidate nire ingurukoek ere gelditzeko gai badirela" (Iker, 11 urte).

Ez hori bakarrik, izan ere, oso ongi barneratu baitituzte programaren oinarriak: "Jazarpenari aurre egiteko urratsak: lehenbizi tutoreari esan, ondoren, bestearen paperean jarri eta, azkenik, argitu jazarpena. Jakin egin behar dugu jazarpenaren atzean mina edo ahulezia dagoela. Oso eskertua nago ikastolarekin, KiVa iritsi arte ez genekien nola egin aurre jazarpenari ezta KiVa araurik ezagutu ere. Eskerrik asko ikastola" (Ainhize); "Lasai eta pozik sentiarazten nau KiVa, arazoak berehala konpontzen direlako" (Aiala, 11 urte); "KiVarekin ikasi dudana guztia praktikan jar dezaket" (Anai, 11 urte); "Babestua sentitzen naiz, jazarpenari aurre egiteko ausartak izan behar dugulako eta laguntza eskatu" (Adriana, 11 urte).

KiVa proiektua epe luzerako proiektua bada ere, ikasleek urte betez landu ondoren gai dira eguneroko egoera ezberdinetan har daitezkeen rolak identifikatzeko. Honez gain, talde presioaren maila ezberdinak ezagutu dituzten heinean, errazagoa egiten zaie hauek ekidin eta besteengan ez eragitea.


Guzti honek emozioetan eragin zuzena duen aldetik, baliabideak eskaintzen zaizkie, autoerregulatu eta besteak ulertzeko gai izan daitezzen; izan ere, errespetua baita bizikidetzaren ardatza. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Norik identifikatu behar du jazarpena eta nor izango da haren kontrako eragile nagusia?
 2. Zer lantzen da rol ezberdinak jokatuz?
 3. Zein helburu du programak jarrera ezegokiak gertatzen direnean?
- Bidalizuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Aimar Rebolé (Zangozako Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Maren Martínez (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua eraikundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.